

4. KATEGORIAKO ARMAK EDUKITZEKO, A ETA B MOTAKO TXARTELAK ESKURATZEA

Helburua:

4. kategorian sartzen diren armak edukitzeko udal baimena lortzea.

Norentzat:

14 urtetik gora izan eta aipatzen diren arma bat eskuratu duten herritarrentzat, betiere honako baldintzak betetzen badituzte:

- Bergaran errolkatua izatea
- 14 urte baino gehiago izatea (18 urte baino gutxiagokoek guraso agintedunaren edo tutoreen baimena behar dute)
- Baldintza fisiko edo psikikoengatik galarazitakoek ezin izango dute armarik eduki edo erabili, inola ere ez.
- Baldintzak eta arautegia onartzea.

Txartelak horretarako prestatuak dauden lekuetan erabiltzeko eta eramateko bakarrik balio du.

Aurkeztu behar diren agiriak edo betebeharrak:

- Eskaera-eredua (F0067), behar bezala beteta.
- Arma-dendan emandako txartelak, behar bezala beteta: arma txartelaren 3 ale eta titularraren datuak jasotzekoa bi ale.
- 14-16 urte bitarteko adinekoek gurasoen datuekin bete beharko dute eta sinatu ere.
- 16-18 adin tartekoek, titularrak izango dira eta txartela bere datuekin aurkeztuko dute baina guraso batek ere sinatuta ekarriko du.
- Eskatzailearen identitate agiriaren jatorrizkoa eta kopia
- Adingabekoen kasuetan, baita ere guraso agintedunaren edo tutoreen identitate agiriaren jatorrizkoa eta kopia
- Transmisioa denean, gaur egungo jabearen NAN edo AIZen kopia
- Arma edo armak

Aurkezteko epea:

Mugagabea.

Eskabidea non aurkeztu:

BERTARATUTA

BULEGOA: Udaltzaingoa. Udaletxea. San Martin Agirre 1, beheko solairua

ORDUTEGIA: Astelehenetik larunbatera, goizeko 08:30etik 13:30era

Harremanetarako:

Telefonoa: 943 779 106

e-maila: udaltzaingoa@bergara.eus

Zenbatekoa / Tasak:

Ez dagokio.

Departamentu

Udaltzaingoa

arduraduna:

Organo
erabakitzailea:

Alkatea.

Erabakitzeko epea

Hiru hilabete

Administrazio-
isiltasunaren
eragina:

Ezespena

Legeak eta
arauak

- 137/1993 Errege Dekretua, Armen Araudia onartzen duena
- 976/2011 Errege Dekretua, Armen Araudia aldatzen duena.
- INT/2860/2012 agindua, airsoft eta paintball motako aisialdi-kirol jardueretan erabiltzeko arma jakin batzuen aplikaziozko erregimena arautzen duena.

Lotura duten
dokumentuak

Inprimakia: "4. kategoriako armak edukitzeko udal baimena" (F0067)

OHARRAK:

Urtarrilaren 29ko ED 137/1993 Arma Araudiaren 3. art.
INT agindua 2860/2012, abenduaren 27koa

A Motako txartela: baimen honek 4. kategoria barruan dauden arma hauetarako balio du.

1.- Karabinak eta pistolak, tiro erdi automatikoak eta errepikakoak, eskopetekin parekatuak ez dauden aire eta beste gas konprimituek eragindako egite bikoitzeko errebolberrak eta disparatzeko sistema automatikoa duten aisialdiko edo kiroletako armak.

Iraupena: 5 urte

B Motako txartela: baimen honek 4. kategoria barruan dauden armetarako balio du.

2.- Arima leun edo marraduneko eta tiro bakarreko karabinak eta pistolak, eskopetekin parekatuak ez dauden aire eta beste gas konprimituek eragindako eragite bakuneko errebolberrak eta malgukiz edo erresortez eragindako aisialdiko edo kiroletako armak.

Iraupena: iraunkorra.